



A zer nolako astea!

Otsailak 1

Kaixo, kaixo!!!

Dakizunez, barnetegian egon nintzen, eta horren nekatuta etorri nintzen, ezin izan baitut orain arte idatzi. Barkatu!

Gauza asko egin genituen barnetegian, baina garrantzitsuena kontatuko dizut. Gogoratzen zara esan nizula ikaskide bat gustuko nuela, ezta? Ba, barnetegian ohartu ez naizela bakarra! Nire lagun minenak esan dit berak ere gustuko duela, eta ondoko gelako beste batek ere bai. Eta orain, zer egingo dugu??? Sekretua gordetzen jarraitu bai, a zer nolako lotsa enteratzen bada!!! 😬

Lurraskatik bueltatu eta hurrengo egunean, ostegunean, ez genuen eskolara joan behar izan, jai eman ziguten. Eta eskerrak! Lur jota nengoen eta. Ordu pila bat pasatu nituen lotan, eta telefono hotsak esnatu izan ez banindu, askoz gehiago egingo nuke lo.

Baina telefonoaz bestaldeko ahotsa entzun nuenean, ziztu bizian pasatu zitzaidan logurea. Aitak deitu ninduen, negarrez. Hasieran ez nion ezer ulertu, baina pixka bat lasaitu zenean esan zidan amona ospitalean zegoela. Zebrabidetik errepidea gurutzatzen zihoala, auto batek ez zuen ikusi eta egundoko kolpea eman zion. Asteburu guztia pasatu du aitak ospitalera bueltaka. Eta medikuak esan digu zauri larriak dituela eta, agian, ez dela bizirik aterako. Aixxxxx, ezin duzu imajinatu zein triste nagoen, nire amona maitea.

Amonaren kontua guztiarekin, burua beste nonbait daukat. Ostiralean eskolara joan nintzenean ez nion inori ezer kontatu nahi izan, nahiago izan nuen guztiek bakean uztea. Baina irakaslea ohartu zen zerbait pasatzen zitzaidala. Ez nituen etxerako lanak egin, klasean ezin nuen arreta jarri... Eta nire lagunek ere esaten zidaten triste ikusten nindutela.

Agian zerbait kontatu beharko diet... baina badakit kontatuz gero, negarrez hasiko naizela, eta ez dut gela guztiaren aurrean negarrez hasi nahi.

Beno, pentsatuko dut zer egin... kontatuko dizut! Agur!!!

Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren erantzun galderak ikasi dugun bezala.

1. Nork gehiago du gustuko ikaskidea?

.....

2. Zerk emango lioke lotsa?

.....

.....

3. Zergatik egin zituen horrenbeste ordu lo?

.....

.....

4. Nork deitu zion telefonoz?

.....

5. Nor dago ospitalean? Eta zergatik?

.....

.....

6. Nola dago idazlea?

.....

.....

7. Zure ustez nori kontatu behar dio ostegunean gertatutakoa?

.....

.....